

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa, 5. liburukia

Aurkezpena

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2013ko abenduaren 12an

Andres Urrutia, Adolfo Arejita eta Xarles Videgain (Euskaltzaindia), Pello Ugalde (Laboral Kutxa), Ana de Castro (Bizkaiko Foru Aldundia), Patxi Baztarrika (Eusko Jaurlaritza)

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen mintzaldia

Euskaltzainburua, euskaltzainok, mahaikideok, hedabideetako langileok, egun on:

Eusko Jaurlaritzaren izenean, lehenik eta behin, nire poza agertu nahi dut gaur hemen, euskararen Herri Hizkeren Atlasaren 5. liburukia aurkezten dugulako.

Euskararen ikerkuntza eta zabalkunde lanean beste urrats bat da hau, urrats garrantzizkoa. Azpimarratzekoa eta aitortu beharrekoa da herri-hizkeren ondarea ikertzeko, biltzeko eta ezagutzera emateko euskararen akademia egiten ari den lana.

Euskaltzainburu jaunak adierazi ditu egitasmo zabal honen ezaugarriak eta onurak. Euskararen adierazmen agorreztinean eta hiztunen mintzamolde anitz eta desberdinetan murgiltzeko eta sakontzeko aukera paregabea ematen digu bilduma honek. Euskal hizkeren erregistroak bildu, sailkatu eta mapetara eramaten ditu bildumak, eta gainera, argitalpenen eskutik ez ezik, internet bidez ere herritarren esku jartzen da hori guztia.

Bizitzaren gauza guztietan bezalaxe, euskarari dagokionean ere, nora joan jakiteko ezinbestekoa da non gauden eta nondik gatozen jakitea. Eta, zentzu honetan, funtsezkoa da euskararen herri hizkeren -eta, bidenabar, euskalkien- altxor-ondarea ondo ikertua eta jaso izatea; hain zuzen ere, euskara lanabes gero eta aberatsagoa, biziagoa eta eraginkorragoa bihurtu dadin. Edo, beste era batera esanda, euskara egungo hiztunok eta egungo gizarteak behar dugun *tresna zorrotza izan* dadin, behinola Mitxelena maisuak aldarrikatu zuen antzera.

Horregatik, aukera honetaz baliatu nahi nuke zuen aurrean gogoeta bat egiteko eta, gogoko baduzue, partekatzeko, herri hizkera eta euskara batuaren arteko erlazioaren gainean. Lehengo batean, euskal kulturaren nor den baten luma finak kezka bat plazaratu zuen: “zer gertatzen ari da euskara batuarekin? Zergatik izan du hainbesteko prestigio galera azken urteotan?” –galdetzen zuen kazetari eta zutabegile fin eta hausnarketa zorrotzekoak. Bere bertsolari sena tarteko-edo, puntua jartzen asmatu duela esango nuke, eta nik ere badut kezka hori, bat egiten dut zutabegilearen kezka horrekin, lau hamarkada luzez euskararen batasun beharrak eta batasun prozesuak metatu duen adostasun eta atxikimendu ia erabatekoan “bai baina” moduko gorabeherak –hauskorrek batzuetan- nola azaleratzen ari diren azken urteotan.

Bada, honen aurrean, uste dut beharrezkoa dela hausnarketa bat partekatzea. Euskarak izugarrizko aurrerapena izan du azken berrogei urteetan.

Gizartearen ezagueraren aldetik zein erabileraren aldetik. Euskara sekula bereak izan ez dituen hainbat esparrutan dabil gaur sasoiko. Sekula bete izan ez dituen hainbat eginkizun betetzen ari da gaur normaltasunez. Eskola, unibertsitatea, lan eta enpresa arloa, administrazioa, zerbitzuak, hedabideak, zientzia, teknologia eta abar ez zaizkio inola ere arrotz gaur. Eta, biziberritze honetan, sekulako garrantzia izan du Euskaltzaindiaren gidaritzapean gauzatu den euskara batuaren garapenak, berak ahalbidetu baitu euskararen corpusak bizi izan duen iraultza, dela hiztegian, dela gramatikan, dela terminologian, dela testugintzan, dela zernahi adierazpidetan. Euskara baturik gabe ezin izango genukeen halako aurrerabidea gauzatu euskara gizartearen esparru zabaletara hedatzen.

Baina bada zer edo zer ondo egiten ari ez garena: euskararen batasuna abiatzeko eta burutzeko gaitasuna izan dugun belaunaldiok asmatu behar dugu belaunaldi berriei transmititzen batasunaren onura eta ezinbestekotasuna.

Zeren argi eta garbi aldarrikatu behar dugu euskara batuak euskal hiztunon komunitatea sendotu duela, euskalki bateko eta besteetako hiztunon arteko komunikazioa erraztu eta ahalbidetu duela, euskara gizarte modernoaren beharretara egokitu duela.

Batasunaren prozesu honetan litekeena da beti behar bezain fin ibili ez izana. Izan da, esaterako, euskara batua eta euskalkiak, edo euskara batua eta herri euskara kontrajarri nahi izan dituen.

Ikuspuntu okerra da hori, nire iritzian ere. Gure bizipen kuttunenetan ere, eremu ez formaletan ere, tokia egin behar diogu euskarari. Horretarako euskara bizia behar dugu, adierazgarritasun eta bizitasun handikoa, txispaz betea, eta horretarako iturri paregabeak dira herri hizkerak, garrantzi betekoak ez bairik gabe. Baina oker ibiliko ginateke hori euskara batuari kontrajarriko bagenio, euskara batua hartarako hesi bailitzan, eta euskara batua berez eta nahitaez lehorra eta, aldiz, herri hizkera nahitaez txispaduna bailiran.

Egun aproposa dugu gaurkoa, beraz, argi eta garbi adierazteko euskara batua eta herri euskara ez direla errealitate kontrajarriak, elkar elikatzen duten errealitate beraren alderdiak baizik. Euskara batuak beharra du herri hizkerarena. Eta herri hizkerak beharra dute euskara batuarena, egungo eta etorkizuneko gizartean euskara osasuntsu izango badugu.

Beraz, zorionak Euskaltzaindiari. Herri hizkerak ikertu, jaso eta zabaltzeko egiten ari zireten lan hau, ondare oparo hau ezagutzeko baliagarria ez ezik, euskara batua aberasteko, elikatzeko eta biziagotzeko osagarri ezinbestekoa baita. Horregatik izan duzue Jaurilaritza ondoan. Eskerrik asko.

Patxi Baztarrika